



BOLUNTARIOTZAREN EUSKAL KONTSEILUA

Akta

2017ko apirilaren 5ean, Eusko Jaurlaritzako Lakuako egoitzan, goizeko 10:00etan.

Asistentes:

- Lide Amilibia – Gizarte Politiketako sailburuordea. Lehendakaria
- José Alberto Vicente – Kiribil Sarea. Lehendakariordea
- Pilar Redondo – SECOT Álava
- Carolina Cid - Futubide
- Iñaki Ramírez de Olano – CEAR Euskadi
- Ana Ruiz – AECC Gipuzkoa
- Mayte Díaz de Lezana – AGLE
- Arantzazu Lersundi – DYA de Gipuzkoa
- Maite Fernández – FEVAS
- Olatz Miranda – ATZEGI
- Jesús M^a Zaldua – Nagusilan
- Enara Solabarria – Nagusilan
- Antxon Velasco - Euskal Herriko Eskautak Trebeak Federakuntza
- Natxo Arnaiz – Bolunta
- Nekane Zeberio – Arabako Foru Aldundiko Kabineteko zuzendaria.
- Rafael Hernández – Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikaria.
- Natividad López de Munain - Eudel
- Olatz Garamendi – Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea.
- Josu Zubiaga – Segurtasun Saileko sailburuordea
- Mireia Elkoroiribe – Osasun Kontseiluko Kabineteko zuzendaria.
- Edurne Ramón – Kultura Saileko teknikaria.
- Emilio Sola- Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.
- Mari Jose Berciano – Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzako teknikaria.
- Lidia Prieto – Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzako teknikaria.
- Ramón Andrinua –Gizarte Politiketako sailburuordetzako teknikaria.

Gai-zerrenda:

- 1.- Aurreko bilkurako akta irakurtzea eta hala badagokio, onartzea.
- 2.- Kontseiluko kide berrien aurkezpena.
- 3.- Kontseiluaren eta Lantalde iraunkorraren funtzioei errepasoa
- 4 -2013-2016 Euskal Boluntariotzaren Estrategiaren ebaluazioa. Lan talde Iraunkorrak egindako balorazioaren aurkezpena.
- 5.- 2017-2020 Euskal Boluntariotza Estrategia- Estrategia Vasca del Voluntariado 2017-2020. Berau prestatzeko prozesua.
- 6.- Euskal Boluntarioen Topaketa. Apirilaren 8an ospatuko dena.
- 7.- Bherria Egitasmoa Informazioa.
- 8.- Kontseiluaren hurrengo osoko bilkura..
- 9.- Galderak eta eskaerak.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Aurreko bilkurako akta onartu da, 2016ko urriaren 19an ospatutakoa. .

2.- Kontseiluko kideen aurkezpena.

Azken bileraren ondoren hauteskunde autonomikoak ospatu direnez, kide batzuk berriak direnez, bertaratutako bakoitzak bere burua aurkeztu du.

3.- Kontseiluaren eta Lantalde iraunkorraren funtzioei errepasoa

Kontseiluko kide berriak bertan daudenez, Lide Amilibia Gizarte Politiketako sailburuordeak Kontseiluaren funtzioak gogorarazi ditu, boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 14. eta 15. artikuluetan jasota daudenak, baita Lantalde Iraunkorraren osaera eta funtzioak ere, Kontseiluak berak 2011ko urriaren 13ko bileran onartu zituenak.

Halaber, jakinarazi du ordura arte boluntariotza Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzaren eskumena bazen ere, legealdi berri honetan Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzarena izango dela.

4.- 2013-2016 Boluntariotzaren Euskal Estrategiaren ebaluazioa. Lantalde Iraunkorrak egiten duen balorazioaren aurkezpena.

José Alberto Vicentek, Kontseiluko presidenteordeak, Lantalde Iraunkorrak 2013-2016 aldirako Boluntariotzaren Euskal Estrategiari egin dion balorazioa aurkeztu du, bilerarako deialdiarekin batera partaideei helarazi zitzaiena.

Gogorarazi du 2013-2016 Estrategia boluntariotzaren aurreko planak baino soilagoa zela, haien asmoa Autonomia Erkidegoan arlo honi dagokionez

egiten zen guztia jasotzea baitzen. Estrategiak, aldiz, ibilbide-orri soilagoa eta errealistagoa ezarri zuen, legegintzaldiaren lau urteetan zehar modu malguan programatutako ekintza gutxi batzuetan oinarritzen zena. 3 ildo estrategiko handiak azpimarratu behar zirela erabaki zen. Ildo horiek 5 helburu orokorretan zehaztu ziren, eta, horiek lortzen saiatzeko, zegozkien arlo desberdinen arabera ordenatutako 31 ekintza proposatu ziren. Hiru ildo estrategikoak zein izan diren irakurri du:

- Ekintza boluntarioarekiko sentikorra eta aktiboa den herritartasuna eraikitzea (elkartasunaren eta partaidetzaren kultura).
- Elkarte-sare dinamiko baten garapena sustatzea, ekintza boluntarioaren eta parte-hartze sozialaren erronka berriei erantzuna emateko gai izango dena (erakundeetako prozesuak eta boluntariotzari eskaintzen zaion arreta berrikustea).
- Boluntariotzaren fenomenoaren ulermena normalizatzea, gizarte- eta komunitate-eginkizuna nabarmenduz eta berau bultzatzen duten gizarte-eragileen giltzatzeko- eta koordinazio-esparruak indartuz (eragileen arteko lankidetzarako sare eraginkorra).

Adierazi du ez duela ekintza bakoitzaren izena eta betetze-maila aipatuko, banatutako testuan agertzen baita. Aipatu du egin gabeko ekintzak ere betetzen saiatu direla eta landu egin direla, baina azkenean, ez delako aukera egokirik egon edo ez direlako gai izan beharrezkoak ziren kanpoko eragileak lotzeko, ezin izan direla ekintza horiek gauzatu.

Ondorio gisa, honako alderdi hauek nabarmendu ditu:

- Boluntarioen jarduna sustatzeko lan honetan boluntariotza agentziek duten garrantzia.
- Inbertitu diren zenbateko ekonomikoak, dokumentuan xehatuta agertzen direnak.
- Egindako lanaren, hautatu zen estrategia-ereduaren eta betetze-mailaren inguruan Lantalde Iraunkorrek egin duen balorazio positiboa.
- Hautatu zen tresna soil horrek alde txarra ere baduela; izan ere, agian lotura handiegia izan baitu Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzaren aurrekontuarekin. Ondorioz, Lantalde Iraunkorretik eta Zuzendaritzatik kanpoko eragileek protagonismo gutxiago izan dute, eta ekintzak, hein batean, Kontseilutik aldentuta gelditu dira.
- Ezinbestekoa da hurrengo estrategia diseinatzeko, programatzeko eta egikaritzeko prozesuan Kontseilua gehiago inplikatzeko.

Ontzat ematen da Lan talde iraunkorrek 2013-2016 Estrategiaren inguruan egindako ebaluazioa.

Dokumentua aktari erantsi zaio..

5.- 2017-2020 Euskal Boluntariotza Estrategia- 2017-2020. Berau prestatzeko prozesua

José Alberto Vicenteren esanetan, aurreko puntuan adierazitakoaren harira, Lantalde Iraunkorrek proposatzen du 2017-2020 aldirako estrategiak ere estrategia errealista bat izan duela, eskuragarri ditugun baliabideak aintzat hartuko dituen, baina, aldi berean, Kontseiluan ordezkaturik dauden sail eta administrazioetan kudeatzen diren arlo desberdinen artean sinergiak sortzen ahaleginduko dena. Era berean, Kontseiluaren partaidetza aktiboagoa izan beharko litzateke estrategian.

Hura lantzeko, ekintza boluntarioan sartuta dauden lau esparruak hartuko dira kontuan:

- elkarteak. Haien iritzia urriaren 6an jaso zen, 30 erakunderen partaidetzarekin egindako lan-bileran.
- boluntariotza agenziak. Bilerak egiten ari dira haien artean.
- administrazio publikoak: Jaurlaritzako sailak, aldundiak eta EUDEL. Egun batzuk barru idatzi bat bidaliko zaie haien ekarpenak eskatuz.
- pertsona boluntarioak. Datorren larunbatean egingo den topaketan elkartuko gara haiekin.

Iritzi eta proposamen guztiak, batu eta sistematizatuko dira eta hurrengo bilkuran aurkeztuko dira. Ahal dela, ekainaren amaieran izango da hurrengo bilkura.

Proposaturiko lanaren planteamendua onartu da.

6.- Euskal Boluntarioen Topaketa. Apirilaren 8an ospatuko dena

Emilio Sola Gizarte Zerbitzuen Zuzendariak jakinarazi du, aurreko puntuan esan bezala, datorren larunbatean Boluntariotzaren Euskal Topaketa deritzona egingo dela. Topaketa horren helburua boluntariotzaren garrantzia aintzatestea eta bertaratutakoei boluntariotzaren erronken inguruan duten iritzia eta pertzepzioa galdetzea da, haien ikuspegia 2017-2020 aldirako Boluntariotzaren Euskal Estrategian txertatzeko. Azpimarratu du deialdiak arrakasta handia izan duela, 270 pertsonek eman baitute izena (aurreikusitako kopuru handiena), eta haietako askok laguntzailatzat eskaini baitute beren burua, osatzen diren lantaldeak dinamizatzeke. Lan-dinamika sei edo zazpi pertsonako mahaietan eta lau txandatan lau gai lantzea izango da, pertsona bakoitzak lau mahaietan parte har dezan eta lau gaiak lan ditzan: ikusgaitasuna eta aintzatespena, izaera eraldatzailea, gizarte-erakundeak eta boluntariotza, eta etorkizuna eta berrikuntza soziala. Hiru autobus antolatu dira Bilbotik eta bat Donostiatik, partaideak lekualdatzea errazteko.

Topaketaren programa aurkeztu du:

- 9:30-10:00 Harrera
- 10:00 Irekiera ekitaldia
- 10:15 Topaketaren aurkezpena
- 10:35-11:15 Aurkezpen dinamika

- 11:15-13:30 World café lau lan itzuli mahaietan.
- 13:30-14:00 Ondorioak bateratzea
- 14:00-16:00 Lunch-a eta topaketaren amaiera

7.- Bherria Egitasmoa Informazioa

Lantalde Iraunkorrek jakinarazi du proiektu hau 2013-2016 Estrategiatik atera dela. Estrategia horretan udaleko teknikarien prestakuntza aurreikusten zen, ikusten zelako udalek rol garrantzitsu bat bete dezaketela toki-mailako partaidetza eta boluntariotzaren dinamizatzaile eta sustatzaile gisa. Ideia garatzen jarraitu zuten, eta orain proposatzen dena topaketarako eta prestakuntzarako eremu bat da, hasiera batean udal gutxi batzuei zuzenduta egongo dena, partaidetza eta boluntariotzarekin lotutako egungo esperientzien inguruan hausnartu eta ikasteko, baita gauzatzen ari diren edo berriki gauzatu diren esperientzien inguruan ere. Helburua esperientzia onak dituzten udalek haien bizipenak interesa dutenekin partekatzea da, proiektu horietan parte hartzeko interesa hedatzen joan dadin. Lana sarean eta aurrez aurre egingo da, eta udaletan ardura teknikoa edo politikoa duten pertsonei dago zuzenduta.

Proiektua nahiko aurreratua dago. Oraindik ez da zehaztu nortzuk parte hartuko duten.

8.- Kontseiluaren hurrengo osoko bilkura.

Emilio Solak adierazi du hurrengo Kontseilua ekainaren amaieran ospatzeko ideia dagoela, ordurako Lantalde Iraunkorrek 2017-2020 Euskal Estrategia lantzeko oinarriak baldin baditu. Bileraren helburua oinarri horiek partekatzea eta balioestea izango dela, hortik aurrera Estrategia idazten hasteko.

9.- Galde eskaerak.

Lide Amilibiak jakinarazi du martxoaren 17an argitaratu zela esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen Agindua. Eskabideak aurkezteko epea apirilaren 18an bukatuko da. Halaber, aipatu du aurtengo aurrekontuetan berriz ere diruz lagundu ahalko dela ezagutzaren ildoan. Espero du deialdia ekainean argitaratu ahal izatea.

Rafael Hernándezrek 2016an ondo egin ziren bi kontu nabarmendu nahi ditu. Alde batetik, Zaporeak elkarteari eskerrak eman dizkio Grezian errefuxiatuekin egindako lanagatik. Bestetik, Donostia Europako kultur hiriburu izatearen ondorioz egindako boluntariotza-programa aipatu du. Esan du pertsona eta erakunde askok egin dutela lan hiriburutzarekin lotutako ekitaldiez arduratzen zen fundazioarekin; 1.500 boluntario baino gehiago momentu jakinetan eta 300 boluntariotik gora modu iraunkorrean lanean. Gaineratu du

2014an hasi zirela lan hori egiten; izan ere, boluntarioei prestakuntza eman zitzaien, desgaitasuna duten pertsonak eta gizarteratze-prozesuan daudenak aintzat hartu ziren, eta boluntarioen topaketak urte osoan zehar egin dira, ia hilerotako bat. Gainera, hiriburutza amaitu ondoren, boluntario gisa lan egin zuten pertsona batzuek beste erakunde batzuekin lan egiten hasi dira.

Landu beharreko beste gairik ez dagoenez, bilkurari amaieran 11:15etan eman zaio.

O.E.

Ramón Andrinua

Lide Amilibia